

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko maiatzaren 3a

\*



## Kantautore eta folk taldeen topaketak Gaiarren

■ Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatuta, Kantautoreen Topaketako finala egingen dute hil honen 12an Gaiarre antzokian. Hamar abeslari aurkeztu eta sei hautatu ditu epaimahaiak. Batzuek lehen aldiz hartuko dute parte, bigarren edo hirugarren aldiz beste batzuek. Musika

zaletasuna da batzuentzat, ogibide bihurtu nahi dute beste batzuek. Kantautoreak ezezik, folk musika jotzen duten taldeak ere Gaiarren izanen dira hilaren 12an. Folk Taldeen Topaketa estreinakoz antolatu da aurten. Hiru taldek eman zuten izena eta bik besterik ez dute parte hartuko. ■

### Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Harrituta nago etxe guztietako saloiak nola dauden moldatuta ikusita. Batek kristalezko mahai bat izan dezake; berte batek, berriz, zurezkoa; batek laruzko besaulkiak izan ditzake, eta berte batek, aldiz, zurezkoak; baina saloi guztiak gauza berera zuzenduta daude, atentzio gune bera dute, zentro bakarra: Telebista. Itzalita egonen balitz sikiera... baina ez. Egongelako altzari bat gehiago bertzerik ez balitz, izkina batean dagoen lorontziaren pare, ez litzateke lerro hauen protagonista izanen.

Bazkaldu eta egiten dugun lehendabiziko gauza telebista piztea da, zer dagoen jakin gabe ere, bere ahots metalizatua gure artean sumatu nahian, bera gabe etxea berdina ez balitz bezala. Arratsalde guztian bere horretan jarraitzen du, ohatzera joan arte, eta loak hartu aitzinetik buruan dugun gauza

### Solasak

bakarra zunba-zunba egiten digun bere oihartzuna da.

Etxean telebistarekin dugu komunikaziorik handiena, guk deus gutti erran arren. Guiraso eta seme-alaben arteko komunikazioa ttikitzen da telebistarekin duguna handitzen den era berean. Honela, ematen diguten informazioa pasiboki asimilatzen ikasten dugu, telebistari erantzuteko aukerarik ez izateak bizitzaren bertze edozein ataletan ere berdin jokatzera garamatzalarik. Elkarriketetan erabili beharreko arrazoiaren garapenaren kaltegarri da, eta horien emaitzarik latzena inkomunikazioa da, noski.

Ez zen nire helburua gauza aditua berriz errepikatzea, baina hain dut hurbilekoa errealtate hori...

Telebistari jarraiki, baina gaia aldatuz, ez dut aipatu gabe utzi nahi lehengo

batean ETBko aurkezle bati aditu niona. Xehetasun bat gehiago ematearren eta ez bertze deusengatik, aurkezlea gizona zekoa zela erran behar. Ba, beno, honek ikus-entzulegoari zuzentzen ari zitzaien momentu batean zera bota zuen, gutako norbait emakumea izan zitekeela erreparatu gabe: «Hori duk hori». Horrelako zerbait gertatzen den aldiro, «automatikoki atera zait», «ez dut nahita egin», «ez da hainbertzekoa»... eta horrelako hainbat aitzakia aditzea da normalena, baina niri ez zaizkit balio.

Horrelako detaile nimoen ere badute bere eragina-sexismoaren zaku ikaragarrian, balore sexistak aunitz inkontzienteki barnatzen baitugu eta hizkuntza da horretarako erreminta garrantzitsuenetariko bat. Kontuz ibili, hizkuntza ere sexita baita. X



**GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Gares:** Celtas Cortos taldeak bere disko berria aurkeztuko du gaur, 23.00etatik aurrera. Funda-Mental afetoan. Sarrerak 1.500 pezeta izanen dira salgai.

**Zizur Nagusia:** Xabier Muguruza Kultur Aretoan kantari ariko da gaur, 22.00etatik aitzina. Sarre-ra 500 pezeten truke eskuratu ahal izanen da, edota 250 pezeten truke gazte txartelaren jabe izanez gero.

**Burlata:** Euskalerrria peñaren eskutik Baron Rojo taldeaz zuzenean eta musu truk gozatzeko parada izanen da larunbatean Ezkabazabal plazan, 21.00etatik aurrera. Rockerrak ariko dira hegy-aren dinosauroen aurretik.

**Lakuntza:** Su ta Gar, Baldin Bada eta Behin betiko taldeek herriko pilotalekuan joko dute larunbatean 23.00etan. Aurtengo Nafarroa Oinez-en aldeko jaialdia izanen da honako hau.

**Barañain:** Oskorriekin berriro ere kantari aritzeko parada izanen da asteazkenean, hilak zortzi, Retegi pilotalekuan eta 20.00etan. IKAK eta herriko Udalak elkarlanean eskainiko dute euskal karaoke honetan parte hartzeko beta.

**ANTZERKIA**

**Barasoain:** Markeliñe antzerki taldeak Armagedon izeneko obra taularatuko du larunbatean, 20.30etan, herriko pilotalekuan. Ikuskariak gozatu ahal izateko ez da sarrerarik ordaindu behar izanen.

**ERAKUSKETAK**

**Iruñea:** Asun Goikoetxearen margoak hilaren 26ra arte izanen dira ikusgai NUPek Carlos III etorbidean duen erakustaretoan.

**Iruñea:** Jose Guerreroren erakusketa maiatzaren 19ra arte izanen da irekita Nafarroako Museoa.

**Zizur Nagusia:** Txiki Medinaren margoak maiatzaren 5era arte izanen dira eskegita Kultur Etxean, lanegunetan 19.00etatik 21.00etara, eta jaiegunetan 12.30etatik 14.00etara.

**Tafalla:** Rosa Zunzarrenen lanak maiatzaren 19ra arte izanen dira gozagai Velaz galerian (Iruñea etorbidea, 15).

**IBILALDIAK**

**Altsasu:** Iganderako menditxirindularitza ibilaldia antolatu du Sakanako Kirol Batzordeak. Txirindulariak Altsasuko kanpinetik abiatuko dira, eta Dulantzira joan-etorria egingo dute, guztira 41 kilometro eginez.

**HITZALDIAK**

**Iruñea:** Eguzki talde ekologistak Euskal Herria ekologiatik eraikitzen izeneko bideoa pantailaratuko du NUPen, goizean, eta horren gibeletik hitzaldia izanen da.

*nafar kronika*

Patxi Larrion


**Nor baino nor**

**M**adrilen legegintzaldia hasi ez delarik, Gobernu berriak, aurki, mahai gainean izanen duen gai bat ekarri na- hiko nuke orriotara. Ezaguna da azken urteotan, telebistaren inguruan, ETBren inguruan hain zuzen ere, sortu den eztabaida. Eztabaidak baino desenkontruak izan dira Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzaren (EAJ esan beharko genuke) artean gai honen inguruan izan dituzten harremanak.

Dagoeneko abian da pasa den urtean erdietsi zen konponbide mugatua, barne mugak ezartzen dituen hitzarmena. Horren lekuko dugu, afera honen inguruan Madril-ek berriki hartu duen erabakia. UPNren iragarpena betez, momentuz baliorik gabekoa dugu hainbat bilera, solas eta izerdiren ondoren hitzartutakoa. Forma akatsak nonbait.

Ezin jakin, EAJk, Madrilgo Gobernuan parte hartzeko negozi-azioan, Nafarroaren inguruko gairik mahaigaineratu duen ala ez. Ezaguna da, duela zenbait urte, Nafarroa Garaiko interesak defenditzeko asmoz, jeltzaleek Madrilgo Kongresuan eta Senatuan nafarren alde lan egiteko hartu zuten konprometua.

Elkarrizketa eta negoziazioaren dohainak maiz azpimarratzen diren honetan, nafar eskuina dute bide- lagun Sabino Aranaren ondorengoek. Bai batzuek, bai besteek, negoziatzeko duten gaitasuna frogatu dute; lehenbizikoak, muga guztiak hautsiz, Kanariar Uharteetara iritsi dira. Gai izanen ote dira bien arteko akordioak lortzeko? Behar-beharrezkoak ditugun bestelako solas eta akordioak bultzatuko ote dituzte? Bietakoren bat aukeratzekoan zein izanen da bibotedunaren hautua?



*asteko pertsonaiak*



**Berta Bermudez**  
Dantzaria

■ Berta Bermudez balet dantzari iruindarra Espainiako Dantza Konpainia Nazionaleko lehen dantzaria izanen da heldu den denboraldian. Joan den larunbatean, Nacho Duato dantzari eta konpainiako zuzendariaren eta beste bost epaimahaikideren aurrean dantzatu zuen beste 200 hautagairen artean. Azkenean, bera aukeratu zuten. Gaur egun eta udara bitartean, William Forsyth ezagunak zuzentzen duen Frankforteko Baletoko kide da Berta Bermudez, Maite Pascual Nafarroako Antzerki Eskolako zuzendariaren alaba. Espainiako Dantza Konpainia Nazionaleko lehen dantzari berriak Iruñeko Almudena Lobonen akademian eman zituen lehen urratsak.



**Antonio Perez Prados**  
NUPeko errektorea

■ Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gobernu Batzordeak ikasketak egutegian hainbat aldaketa egitea erabaki du berriki. Erabaki horrek, ordea, ikasleen egonezina sortu du. Egutegi berria heldu den ikasturtean jarriko da martxan. Kurtsoa irailean hasiko da. Horretaz gain, ikasleek euren unibertsitateko lehendabiziko ikasturtean gutxienez 15 kreditu gainditu beharko dituzte, eta hortik aitzina urtero gutxienez matrikulatutako kredituen herena. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen ordezkarien aburuz, «antidemokratikoak» izan dira Gobernu Batzordeak ikasketak egutegian egindako aldaketak.

*ahaztu gabe!*



**BIZIKLETA MARTXA**

**Uharte:** Herriko Itoitzen Aldeko Taldeak eta Burlatako Itoitz eta Solidarioen Aldeko Taldeak antolatuta, Iruñeko espesetean diren Itoitzekiko Elkartasuna taldeko zortzi kideen aldeko eta Itoizko herriaren aldeko bizikleta martxa egingen dute gaur. Partaideak arratsaldeko 19.30etan elkartuko dira Uharteko enparantzan eta bertatik abiatuko dira Iruñerantz. Iruñean, espesetean aurrean amaituko da ibilaldia. Atarrabian eta Burlatan barrena ere ibiliko dira bizikleta martxako partehartzaileak.

Espesetara ailegatuta merienda egingen dute, antolatzaileek pres-tatu duten egitarauaren arabera. Txaranga baten laguntza ere izanen dute txirindulariek, giroa alaitzeko. Espesetean aurrean, barruan diren Itoitzekiko Elkar-tasuna taldeko kideei elkartasuna helarazten saiatuko dira partaideak, antolatzaileek aurreratu dutenez. Itoitzekiko El-kartasuna taldeko kideak «hondamena, lesioak eta koakzioak» egiteaz akusatuta espesetara zituzten apirilaren 6ko ekintza-ren ondoren.

*adi!*

**Euskalerrria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

**Karrape Irratia FM 107,8**

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gainetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.



Atarrabia

# Udaberria eta Emakumearen Astea

Udalak hirugarrenez antolatu du, Irati Elkartearenkin, eta osteguna arte iraungo du

**H**irugarren aldiz Udaberria eta Emakumearen Astea antolatu du Atarrabiako Udalak, Irati Elkartearen laguntzaz. Datorren ostegunera bitartean ekitaldi ugari izanen da egunero. Antzerkia, kontzertuak eta hitzaldiak ere prestatu dute antolatzailleek. Maiatzaren 9an, hain zuzen, emakumearen egoeraz mintzatuko dira Atarrabian Clotilde Garcia eta Txaro Arteaga.

Erredakzioa / Iruñea



Txaro Arteaga Emakundeko burua hitzaldia eskainiko du.

ATARRABIAKO UDALAK Irati Elkartearen laguntzaz antolatuta, Udaberria eta Emakumea lelopean prestatutako hirugarren astea abian da dagoeneko, garaian baikaude. Astelehenean jarri zuten martxan eta datorren ostegunera bukatuko da. Hasteko, gaur arte ikusgai da Jubilatuen Elkartearen eskulan, ehunen estanzazio eta jantzigintzari buruzko erakusketa. Irati Elkarteak antolatutako ikastaroetan herriko emakumeek egindako lanek osatzen dute aipatu erakusketa, ikasturtea amaitu ondoren. Gaur ere, arratsaldeko zazpi eta erdietan, *La tabernera del pueblo* zarzuela eskainiko dute Atarrabiako Hilarion Eslava Musika Eskolako kantu ikasleek. Rosalina Caballin eta Larrantz dantza taldeko partaideak ere izanen dira udal zineman eginen duten emanaldi ikusgarri honetan.

ratuko du udal zineman, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Astearterako, bestalde, ikus-entzunezkoa antolatu du Atarrabiako Udalak. Koldo Irigoienek eskutik, Nafarroako Pirinioetako bailarak, fauna eta landareak ezagutzeko aukera izanen dute udal zineman bildutakoek. Ikus-entzunezkoa arratsaldeko zazpietatik aurrera ikusi ahal izanen da.

Musikak ere izanen du tarterik Atarrabiako Udalak eta Irati Elkarteak antolatutako Udaberria eta Emakumearen Astea. Musika Reservata taldeak, hain zuzen ere, *Serenatas para luna llena* kontzertua eskainiko du. Bertan, antzinako ahots eta musika tresnak erabiliko dituzte taldeko kideek. Kontzertua udal zineman izanen da, gainontzeko ekitaldi guztiak bezala, eta arratsaldeko zazpietan puntuan hasiko da.

Osteguneko izanen da hirugarren aste honetako azkeneko eguna. Azken honetarako, hain zuzen, hitzaldia prestatu dute antolatzailleek. Clotilde Garcia Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendaria eta Txaro Arteaga Emakundeko zuzendaria

izanen dira Atarrabian. Udaberria eta Emakumearen Aste honetan emakumeak bizitzako atal ezberdinetan egun bizi duen egoerari buruz hitz egingo dute. Hitzaldia Atarrabiako zineman izanen da eta arratsaldeko zazpietan hasiko da.

Seme-alabak dituzten eta ekitaldietan parte hartu nahi duten emakumeentzat haurtzaindegi zerbitzua prestatu du Atarrabiako Udalak.

Zerbitzu hau asteleheneetik ostegunera bitartean erabili ahal izanen dute nahi duten emakumeek. X

Tutera

## Haur eta gazteentzat eskaintza zabala udan

Udalak, besteak beste, udalekua antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO UDALAK herriko haurrentzat eskaintza zabala prestatu du udako hilabetei begira. Alde batetik, Ultzamako udalekura joateko aukera izanen dute zortzitu hamalau urtera bitarteko gazteentzat, uztaillaren 1etik 10era bitartean. Parte hartu nahi duenak hil honen 13tik 17ra bitartean eman behar du izena Castel Ruiz Kultur Etxean, goizeko bederatzietatik ordu bietara bitartean. Ehun haur inguruk izanen du Ultzamako udalekura joateko aukera aurten.

Bestalde, *Ludokale* izeneko ekitaldia antolatu du aurten

Udalak. Hil honen 11n hasiko da eta ekainaren 15a arte iraungo du. Larunbatero eginen da, arratsaldeko lauretatik zazpiak arte, Queiles pasealekuan. Haur eta gazteek joko eta tailerretan parte hartzeko aukera izanen dute, dohainik.

Azkenik, herriko liburategia eta igerilekua bat eginen ditu Udalak estreinakoz, *Bibliogerilekua* deritzen ekimenaren bitartez. Udan egunero, arratsaldeko lauretatik seiak arte, liburategiko liburuak igerilekuan eskuratu ahal izanen dituzte herriko haur eta gazteek. Irakurtzeko zalefasuna piztu eta bultzatu nahi du Udalak ekitaldi honen bidez. X

Altsasu

## Tapizak egin eta oihalak apaintzeko tailerra prest

Sara Zufiaurre eta Marian Uriberen eskutik

Erredakzioa / Iruñea

TAPIZATZEN eta oihalak apaintzen ikasteko tailerra prestatu dute Sara Zufiaurre eta Marian Uribe altsasuarrek. Altsasuko Udaleko Emakumearen Sailak antolatuta, iazko maiatzetik joan berri den apirilera bitartean ikastaroak egin ondoren bururatu zaie tailerra prestatzea bi altsasuar gazteoi.

Aurki abian jarriko den tailer honetan —Samazube izena jarri diote bien izen-abizenak nahastuz— aulki, ate eta beste-lakoak tapizatzen ikasiko dute partehartzaileek, baita kortinak eta ohegairakoak egiten

ere. Horretaz gain, zurezko altzari zaharrak nola berritu ere ikasiko dute.

Oraingo Domingoa Lumbier ikastetxetako gela batean jarri dute Sara Zufiaurre eta Marian Uribe euren tailerra, Altsasuko Udalak urtebeterako utzi baitie. Bestelako laguntzarik ez dute.

Hala ere, pozik agertu dira abian jarri berri duten proiektuarekin.

Orain dela bi urtetik langabezian ziren biak eta tailerrari esker sormen lana egiteko aukera aurkitu dute. Aukera hori, gainera, euren egoera berean den herritar orori eskaini nahi diote. X

Tafalla

## Kultur egitarau zabala datozen bi asteetan

Kultur Patronatuak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

TAFALLAKO UDALAKO kultur Patronatuak egitarau zabala prestatu du datozen bi asteetarako. Hasteko, gaur bertan, Kevin Brookingek *Patas arriba* izeneko ikuskizuna aurkeztuko du barietate eta kafe-antzerki zikloaren barruan, Guesera aretoan, gaueko hamaiketan.

Hurrengo ostiralean, berriz, Yan Fen Puppet Theatre txotxongilo taldeak bere *Escenas de la ópera de Pekin* lana aurkeztuko du. Zikloari amaiera emateko, azkenik, hilaren 17an, Oihulari Klown taldeak *Modelos Klown* trapezularia aurkeztuko du.

Bi erakusketa zabalduko dituzte ostegunera. Arte eta Ingurugiroa lehiaketako obrak Erakusketa Aretoan izanen dira ikusgai hilaren 26ra arte eta Elkarrik antolatutako erakusketa Lagar Aretoan, hilaren 19ra arte.

Kieslowski zinemagilearen omenezko zikloa hasiko da, halaber, ostegunera. Ziklo honetan, bere trilogia ezaguneko filmak ikusgai izanen dira, *Azul, Blanco eta Rojo*, hilaren 9an, 16an eta 23an.

Kontzertuei dagokienez, azkenik, Pablo Sarasate eta Amalur orkestrak izanen dira datozen asteetan Tafallan. Pablo Sarasate Orkestrak hilaren 14an eskainiko du kontzertua, Santa Maria elizan, eta Amalur Orkestrak hilaren 25ean, San Pedro elizan. X

Irurtzun

## Euskararen erabilpena bultzatzeko jardunaldiak

Udalak, Aizpeak eta Larrazpik antolatu dituzte

Erredakzioa / Iruñea

IRURTZUNGO Euskara Taldeak eta Larrazpik euskararen erabilpena bultzatzeko jardunaldiak antolatu dituzte. Gaur, arratsaldeko zortzi eta erdietan, *Gazteak eta euskara* gaiari buruzko hitzaldia eskainiko dute Javier Ozaeta, Jose Manuel Leitza eta Jone Aretak, Larrazpin.

Larunbateran, Larrazpin bertan, arratsaldeko lauretan, mus txapelketa izanen da euskaraz. Datorren ostiralean, hilak 10, mahaingurua izanen da Goenkaleko aktoreekin, Kultur Etxean arratsaldeko zortzi eta erdietan. Biharamunera, arratsaldeko lauretan, partxis txapelketa eginen dute Larrazpin. X



Kantautoreen eta  
Folk topaketaren finalak

# Kantautore nafarrak taula gainean

Kantautoreen Topaketako finalean sei abeslari ariko dira lehia hil honen 12an Gaiarre antzokian

**N**afarroako Gobernuak antolatutako Kantautoreen Topaketako finala hil honen 12an ospatuko dute Gaiarre antzokian. Hamar kantautore aurkeztu eta horietatik sei hautatu ditu epaimahaia lehia aritzeko. Irabazleak maketa bat grabatzeko aukera izanen du. Aurten, gainera, Folk Taldeen Topaketa antolatu du Nafarroako Gobernuak estreinakoz.

Edurne Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUAK antolatu Kantautore eta Folk taldeen Topaketaren finala hil honen 12an egingen dute Iruñeko Gaiarre antzokian. Kantautoreen aldetik, aurkeztutako hamarretatik sei —Pablo Gortari, Alberto Gurra, Iñaki eta Estela, Felipe Carbajal, Alfonso Aibar eta Angel Maria Rodriguez— aukeratu dituzte epaimahaiko kideek Gaiarren abesteko eta folk taldeen aldetik, berriz, hiru aurkeztu eta bik hartuko dute parte finalean —Kenai eta Enclave—.

Folk taldeen topaketa lehen aldiz antolatu du aurten Nafarroako Gobernuak Kirok eta Gazteriaren Institutuak. Kantautoreen artekoak, ordea, historia luzeagoa du atzetik. Hilaren 12an Gaiarren izanen diren seien artean, hain zuzen, badira bigarren edo hirugarrenez aurkezten direnak.

Hirugarrenez, adibidez, Alfonso Aibar iruindarrak hartuko du parte. Lehen aldiz, ordea, Angel Maria Rodriguez eta Felipe Carbajal, iruindarrak ere. Eta bigarren aldiz Barañaingo Alberto Gurra. 29, 25, 18 eta 26 urteko abeslari hauen hastapenak berdintsuak badira ere —talde batean izan ziren laurak hasieran—, ezberdina da euren musika.

Baladak, abesti erromantikoak ditu gogoko Aibarrek. Felipe Carbajalek, berriz, pop-rock estiloa —topaketetara bidali dituen abestiak «hiko kantautoreen estilokoak» direla aitortzen duen arren—. Angel Maria Rodriguezek bossa nova, salsa edo tango bezalako eritimoak erruz eta konplexurik gabe erabiltzen ditu. Denetarik egin ahal izateko iriakiak izan behar dute Rodriguezen aburuz musikariok. Alberto Gurraek sentimenduak agertzeko erabiltzen ditu bere abestiak.

Laurentzat «aukera ona» da Kantautoreen Topaketako finalean parte hartu ahal izatea. Bakoitzarentzat, baina, zentzu ezberdina du, itxaropen eta helburu ezberdinak baitituzte. Horretaz guztiaz, kantautoreen egoeraz Nafarroan eta lehiaketaz oro har mintzatu gara finalean



Felipe Carbajal eta Alfonso Aibar Kantautoreen Topaketako finalean izanen dira beste lau abeslarirekin.

OSKAR MONTERO

parte hartuko duten musikariek.

**Bi aldiz bigarrena** • Alfonso Aibarrek 1993. urtean hartu zuen parte lehendabiziko aldiz Kantautoreen Topaketan. Bigarren izan zen orduan eta bigarren 1994. urtean, bigarren aldiz parte hartu zuenean. Hirugarren honetan, beraz, garaipena baino ez du buruan. Lehiakide guztien artean bera da zaharrena —29 urte ditu— eta aurtengoa izanen da parte hartuko duen azken ekitaldia. 30 urtera artekoek baino ezin baitute parte hartu.

Hamalau urte besterik ez zuen lagunarteko rock talde batean hasi zenean. Hamaikatan ibilia da geroztik. Guztien artean, orain aste batzuk lehen diskoa aurkeztu zuen Koma taldean eman du urte gehien, zortzi inguru. Mefisto izena zuten orduan. Rock-ak oraindik erakartzen badu ere, baladak hautatu ditu lanerako. Bere burua, hala ere, ez du oraindik profesionalizat jotzen Aibarrek, nahiz eta hortaz bizi. Lehiaketan parte hartzen dutenen artean bera da, ziurrenik, esperientzia handiena duena. Telebista kate pribatu batean, adibidez, Nino Bravo abeslaria imitatzen atera da behin baino gehiagotan. Orduetik, lana ez du falta izan.

Hala eta guztiz ere, Kantautoreen Topaketan parte hartzeko izanen duen azken aukerari ez dio ihes egiten utzi. «Neure burua ezagutzera emateko bide bat da». Dena den, badu topaketa honek akatsik bere ustez. «Egun baka-



Angel Maria Rodriguez kantautore ezetik Luz de Cruce taldeko kide ere bada.  
JOXE LACALLE



Kantautoreen eta  
Folk topaketaren finalak

rreko kontua da. Finala amaituta, dena amaitu da, ez dago beste laguntzarik, ez dago inolako bultzadarik». Eta kantautoreek —«are gehiago Iruñea bezalako hiri txikian»— bultzada horren premia dute Aibarren irudikoz. Halaber, bakarrik abesteak askatasuna ematen badu ere, zailtasunak biderkatu egiten direla uste du Aibarrek.

## Kantautore eta arkitektura

**ikaslea** • Talde baten barruan ez zuen askatasuna bilatu eta aurkitzeko hautatu du Felipe Carbajalek, hain zuzen ere, kantautoreen bidea. Hemezortzi urteko gazte iruindar honek hamalau zituen geroztik jotzen du gitarra eta azken hamabi hilabeteak, berriz, ahotsa trebatzen eman ditu. Taldeetan aurkitu ez duen seriotasuna soberan du berak. Musikaren munduak hamaika oztopo dituela ederki daki baina, hala ere, bere lanbide bilakatu nahi du musika. Badaezpada, arkitektura ikasten ari da.

Bere estiloari buruz, pop-rock kutsukoa dela azaltzen du Carbajalek. «Taldea batek egin dezakeen musikarekin ez du alde handirik nik egiten dudanak», azpimarratzen du. «Ezberdintasun bakarra bakarrik nagoela da; talde batek egiten duena, nik nere gitarrarekin egiten dut». Onartzen du, hala ere, jendeak buruan kantautoreen irudi berezia duela —«zaharkitua gelditu dena, orain hogeitaz urteko»— eta hori aldatzea zaila dela.

Tradizio falta omen da Carbajalen ustez kontua. «Hemen taldeak ikusi eta entzuterako joaten da jendea, ikuskizuna bilatzen du». Hori dela eta, kantautoreen lana ez da bere ustez batere erraza Nafarroan eta askotan Nafarroatik at joatea da aukera bakarra. Hasteko, kantautoreen Topaketan parte hartzea erabaki du Felipe Carbajalek, «jendeak ni ezagutzeko, nire izena entzuteko».

## «Inbidia handia dago mundu honetan»

• Angel Maria Rodriguez 25 urteko iruindarra da, kantautore, gitarra irakasle eta baita Luz de Cruce taldeko kidea. Bakarrik aritzea nahilago du, «askatasun handiagoa daukat. Talde baten barruan, besteek nahi dutena hartu behar duzu beti kontuan, nahiz eta abestiak zureak izan».

Kantautore izanda ere, ezkor agertzen da kantautoreek Nafarroan bizi duten egoeraz mintzatzean. «Hutsaren hurrengoak gara. Kantautoreak oso gutxi entzuten dira. Bestalde, gure artean ere ez dugu harremanik eta giroa, askotan, txarra da. Elkartasun hitza zer den ez dakigu. Niri bost axola, baina gezurra dirudi gure artean nola gabiltzan batzuetan. Inbidia handia dago». Hainbat taldeko kideen oportunitasoa ere salatu du Angel Maria Rodriguezek. «Lehiaketarako propio bi abesti idazten dituzte eta kitto, gainontzean tal-



Kenai folk talde berriko kideak Gaiarren izanen dira 12an, Enclavekoekin batera.

KENAI

dearekin aritzen dira».

Kantautoreen Topaketari buruz, beste herrialdeetan antzeko lehiaketek duten prestijioa ez duela dio Rodriguezek eta berdin gertatzen da, bere ustez. Pop-Rock lehiaketarekin. «Nafarroan, egun ezagunak diren taldeen artean bakar bat ere ez da lehiaketa horretatik pasatu». Errua, hala ere, ez da bakarrik antolatzaileena, musikariena beraien ere Rodriguezen irudikoz. «Taldea gehienek kritikatzeko baino ez dakite, dirua interesatzen zaie bakarrik». Kantautoreen alorrean ere, musikariek gogorrago egin beharko luketela lan uste du iruindarrak, «baina ez dugu ezer egiten. Ez litzateke zaila izan guztiak elkartu eta ostatueta jo, geure burua horretarako eskaini, baina ez dugu ezer egiten».

Alberto Gurreak, berriz, hamar urteko ibilbidea egin du kantautore gisa hamasei urterekin hasi zenetik. Musikaren munduan, hala ere, lehenago, hamar urterekin murgildu zen. Folklore nafarra jorratzen zuen talde bateko partaide izan zen hasieran, bideari bakarrik ekin zion arte.

Kantautoreen Topaketa ez da berria beretzat, iaz hartu baitzuen parte estreinakoz eta bigarren izan zen. Bere abestien bidez barneko sentimenduak azalerazi nahi ditu, bai letraren zein musikaren bitartez. Azken hamar urteetan bere estiloa sendotu duela uste du eta orain zuzenagoa da. Kantautoreen bideari zaila baderitzo ere, zorionekotzat du bere burua kantautore delako: «Zoragarria da maite duzuna egitea».

## Folk Taldeen Topaketa antolatu du aurten estreinako aldiz Nafarroako Gobernuak

■ Enclave eta Kenai taldeko kideek hartuko dute parte hilaren 12ko finalean

E. E. / Iruñea

AURTEN estreinako aldiz Nafarroako Gobernuak Kirok eta Gazteriaren Institutuak Folk Taldeen Topaketa antolatu du. Hiru besterik ez dira aurkeztu eta epaimahaiak horietako bi hautatu ditu hilaren 12an Gaiarren abesteko, Enclave eta Kenai, alegia. Sorburu bera dute talde biek, jada 30 urteko historia atzean duen Grupos Musicales Unidos, hain zuzen. Iruñeko folk talde gehienek bertan egin dute bat. Aurten lau talde berri sortu dira bertatik, eta horietako bi dira Enclave eta Kenai. Talde bakoitzak bere bidea egin nahi du, dituen ezagueriak azalera ekarri.

Kenai taldea zortzi kidek osatzen dute: Pablo Ozkarizek, Arantxa Altamirak, Pilar Ruizek, Maite Vivesek, Amaia Godejuelak, David Rojok, Roberto Goikoetxeak eta Luis Vives de Pradak. 21etik 28 urtera bitartekoak dira guztiak. Musika zaletasuna da beraientzat. Euskaraz eta erdaraz abesten dute —baita Enclaveko taldekideek ere— eta gitarra eta panderetak dira taula gainean erabiltzen dituzten musika tresna bakarrik. Gitarra, pandereta eta ahotsak.

Estreinakoz antolatu duten Folk Taldeen Topaketa «aukerapolita» dela aipatu digute Pablo eta Arantxa taldekideek. «Gure musika ezagutarazteko». Hala ere, badute kezkarik. «Folk hitzaren esanahia ezberdina izan

daiteke guretzat eta epaimahaiako kideentzat, beldur gara». Izan ere, «ohiko folka baino modernoagoa da guk egiten duguna», nabarmendu du Pablok. «Melodikoagoa», dio Arantxak. \*

Mocedades taldearen musika eurentzat erreferentzia izan dela aitortzen badute ere, egun abesti propioak abesten ditu Kenai taldeak. Pablo da, hain zuzen, taldeko konpositorea. «Mezua duten abestiak egitea gustatzen zait. Hortik aurrera, denetarik egiten dut». Bide berriari ekin diote, beraz, Kenai taldeko kideek. Hori dela eta, lehiaketa honetan parte hartzea garrantzitsua dela nabarmendu dute Pablok eta Arantxak. «Argi eta garbi dugu orain artekoa baino proiektu serioagoa egin nahi dugula», dio Arantxak, «publiko zabalarengana heldu nahi dugu».

Sorburu bera izanik ere, ez da erabat berdina Kenai eta Enclavek hautatu duten bidea. Arantxak argi azaldu zigunez, finean, «rock musikak bezala, folk musikak ere hamaika nabardura baditu». Enclave taldeko kideek —Alberto Melendez, Luis eta Andoni Andueza, Sa-

lome Arrizibita, Yelda Mujika eta Natalia Gil, 24tik 30 urtera bitarteko gazteak— hamaika eragin dituen folka egiten dute. «Taldekide bakoitzak gustu bereziak ditu eta horiek guztiak lekua badute gure musikan». Hortaz, Hego Amerikako eta Afrikako abesti eta erritmoak erraz erabiltzen ditu Enclavek.

«Folk musikan oso zaila da zerbait berria asmatzea, dena eginda dago», azpimarratu du Alberto Melendezek. Horregatik dagoenari euren kutsua eman nahi izan diote Enclave taldeko kideek. Denbora eta baliabide falta ere bada, oraingoz behintzat, abesti propioak ez egiteko arrazoia. «Bakoitzak bere lana du eta musika guretzat zaletasuna da batez ere. Gehiago ezin dugu egin».

Lehiaketari dagokionez, Kenai taldeko bezala, aukera ona dela uste dute Enclave taldeko kideek. «Edozein lehiaketan lan egitera behartzen zaitu eta hori beti da ona», azpimarratu dute. Iruñean dauden folk taldeen zati, gainera, orain arte izan ez duten aukera izan daitekeela uste dute: «Ostatuetan gero eta gehiago antolatzen dituzte kontzertuak baina rock taldeak izaten dira horietan jotzen dutenak, gehienetan. Gu bezalako talde batentzat are zailagoa da nonbait jotzea», dio Luis Anduezak. Ostatuetan jotzea zer den, hala ere, aski ongi daki berak. Enclave taldeko kide ezezik, Dos de Copas bikoteko kide ere bada-eta. X

**Felipe Carbajal:** «Hemen taldeak ikusi eta entzun nahi ditu jendeak, ikuskizuna bilatzen du»

**Alfonso Aibar:** «Egun bateko kontua da, finala amaituta dena bukatu da, ez dago beste laguntzarik»



Xanti Begiristain

## NUPen ere jauntxokeriak?

■ Ba, dirudenez, erantzun beharko genuke baietz edo oso antzeko zerbait. Izan ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Agintaldeak 1996ko apirilaren 26an jakinarazi baitzuten us-tekabean aldateta batzuk. Aldaketa horiek laburbilduz honako hauek dira funtsezkoak: iraileko azterketak kendu eta ekainera igaro; ikasturtea lehenago hasi eta lehenago bukatu, hau da, maiatzean; azterketetara aurkezten ez diren ikasleei deialdia pasatuko zaie; eta, azkenik, unibertsitatean egoteko epea ere murriztu nahi dute. Honela gertatuko litzateke gutxi gora-behera: bi urteko karrerak gehienez lau urtetan egin litezke, hiru urtekoak gehienez bost urtetan, lauokak zazpi urterean epean, eta sei urteko karrerak gehienez hamar urtetan.

Ikus ditzagun orain zein diren Unibertsitateko Gobernu Agintaldearen arrazoiak eta argudioak aldateta horiek burutzen saiatzeko. Lehenik eta behin, talde horrek dio, modu horretan (aldaketekin) kalitate akademikoa hobetu egingen dela, kudeaketa eta administrazio arinduko di-

rela, ikasleriaren emaitzak hobetzea ahalbidetuko dela, deialdi berezia aurreratu ahal dela ekainera, ikasleek uda aprobetxatu ahal dutela, eta era horretan, atsedean ongi hartu ondoren, ikasturte berriari gogotsuago ekin ahal dionela. Era berean, ekainean, unibertsitatean tutoriak jarlitzake, behar duten ikasleek kontsultak eta galderak gauzatzeko. Bestaldetik, Gobernu Agintalde horrek, hurrengo arrazoi hau gehitzen du, alegia, iraileko azterketa garaian, ikasle kopuruaren erdia baino ez dela aurkezten etsaminak egitera, eta horren ondorioz, ikasle gutxi gaintitzen omen ditu probak.

Horregatik guztiarengatik Unibertsitateko Gobernu Agintaldeak, 1996-97 ikasturtean eraman nahi ditu aldateta horiek aurrera behin-behineko moduan eta era esperimentalean, eta gauzak ongi joanez gero, 97-98ko ikasturtean aurrera, modu finkoan utzi, dagoeneko Katalunian, Madrilen eta Espainiako Estatuko beste unibertsitate batean egiten duten bezalaxe. Beraz, unibertsitateko tal-

de horrentzat dena ongi dago, ez du inolako akatsik egin, baina ikasleek eta hauen ordezkariak, aldez, oso bestelako kontuak dituzte, eta iruditzen zait arrazoirik ez dutela falta. Hasteko esan beharra dago ikasleen kolektiko osoa biziki haserre agertu dela, beraiekin Unibertsitateko Agintaldeak ez duelako ezertarako kontaktu, eta esan liteke horixe dela, hain zuzen ere, ikasle guztiak gehien amorrarazi dituen.

Momentuz, ikasleen ordezkariak adierazi dute beren erabateko desadostasuna eta amorrarioz jokamolde horregatik, eta aldi berean iragarri dituzte mobilizazioak eta grebaren bat



protesta moduan. Nahi dutena da eztabaida prozesu batean sartu eta gero erreferenduma lortu jendeak bere iritzia eman ahal izan dezan. Unibertsitateko Gobernu taldearen jokabidea faxistatzaletan jo izan du hainbat ikasleek arrazoi berarengatik; 17-25 pertsonak 10.000 ikasle baino gehiagoren iritzia inondik ere aintzaketatzen hartu ez izanari, guztiz deitoragarri deritzote ikasle gehienek.

Uda ezin aprobetxatzea irakasgai batzuk prestatzeko, deialdiak igarotzea eta beste zenbait gauza ere gaizki hartu dituzten hainbat unibertsitariok.

Bukatzeko, ideia bat baino ez dut transmititu nahi. Ikusten denez, NUPek ere dezente sartu du hanka oraingo honetan, ikasleriarekin ez kontatzeagatik erabaki garrantzitsuak hartzerakoan. Zer esango dut? Ba, tamalgarririk deritzodala, baina Unibertsitateko agintariak eskarmentu moduan hartzen badute hurrengorako, gaitzerdi! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Khataroen aurkako gurutzada eta euskaldunak

■ Beharbada pittin bat harri zezakeen bat baino gehiago duela jada bi urte Peter Berlingen *Die Kinder des Gral* eleberri gotorren gaztelazko itzulpena lehendabiziko aldiz irakurri izanak, batez ere XII. mendeko Languedocen khataro edo albiarren aurka egin gurutzadaren berri ez izanez gero. Harrigarriagoa oraindik agituko zitzaion deblauki euskaldun ez osatu mertzenario talde bat lehenengo orrialdeetan agertzea. Hain sinesgarri otuko ez zitzaiokeena, oster, talde horren buruzagia Gorka deitza zatekeen ia seguru. Nolanahi ere, aitzakia polita zitekeen Berling alemanak eskaini ziguna gure auzoko hurbila den Okzitaniako historian jazo gertaera funtsagarriak ezagutzeko. Orduko euskaldunak gertu-gertutik bizi izan zuten Tolosako inguruetan sortu haize berritzaileak, baita arnastu ere noski. Iruñeko Apezpikutzak historian zehar izan duen gotzainik sendoenetakoen artean Pedro Parisko zegokeen duda izpirik gabe. Izen hantu hura ikastokiak eman zion nonbait, bera baino zenbait urte lehentxeago kadera berean eseri Lope Artaxonako herrikidearengandik hala nola ezberdintzeko.

Hogeita sei urteko agintaldi luzean barrena asko eta asko izan ziren egin, esan edo arazi zituenak, zernahi ere den guri gaurkoan oroz gain interesatzen zaigun bakarra 1179an burutu Letrango III. kontzilioan parte hartzea genuke, orduko agiritako Petrus Pamplonensis sinadurak salatzen diguna. Gotzain bilkura hartan onartu ziren 27 puntuen artean Languedocen gunea zuen khataroen dotrina eta eginkizunak bereziki deitoratzen zituena bazegoen. Horren harlan Artaxonakoak adierazi kezka gaineratu zitzaion batzartuari. Añamendietan babestoki zuen hainbat eta hainbat talderi erreparatzen ziona alegia, nafar elizbarrutiko eliza eta lekaidetxe askotan kupidagabeki sarraski nahiz arpilaketak taigabe egiten zituen khataro euskaldun ez osatu taldeak bestalde. Halaz ere, arras eskasa izan zen Euskal Herrietan khataroek zezaketen indarra, eta are gutxiago Erroman horren bukatzeko neurriak hartu zirenetik, bada 1209an Inozentzio III.a aita santuak herejia horren garbitzeko gurutzada iragarri baitzuen. Eliza instituzionala puntu hortaraino altara zezakeen kristau filosofia honen ezaugarri nabarmenenak Ertaroko beste mugimendu eretikoek zitzaizketenak litezke. Khataroek jarraitu dotrinaren funtsa mundu honen baloreen ukapenean zetan.

Kristauak ziren noski, baina Donibanetan ituna baizik etzuten beste testu sakratuak irakurtzen. Otoitz bakarra alta-gurea zuten, baita sakramentu bakarra ere, *consolamentus* zeritzana, hots, bataio izpiritualea, askotan endura izeneko hil arteko barau batez hornitzen zutena. Elizaren asmo jainkotiarrei hobekien moldatu zirenak Frantziako Capetoen apeta lurkoiak izan ziren, baita zenbait gurutzatuenak ere, besteak beste eta bereziki Simon Montfortenak, oste katoliko buruzagi ankerra. Bata bestearen ondotik, Tolosako konterri eta Beziersko bizkonterriko herriak hartu zituzten gurutzatuek: Bezier, Carcassone, Castres, Bram, Minerve, Termes, Puivert, Cabaret, Labaur, Casses, Castelnaudary, Agennais, Comminges, eta azkenik Tolosa. Gregorio IX.a aita santuak khataroen azkeneko litsak ebakitzeko ardura Inkisizioari luzatu zionean, Montsegurko gaztelutik ateratako talde batek Guillaume Arnaud inkisidorea hil zuen Avignonetan. Hemendik aitzina Montsegur bilakatuko zen gurutzatuen helburu nagusi. Urtebeteko setio baten ostean, eta hasieran aipatu euskaldun talde hari eskerrak, 1244ko martxoaren 2an garaitu zuten gotorlekua, eta 200 khataro inguru bertan ere zuten. Euskaldunen zerikusia gatazkarekin etzen hala ere Montsegurko setiora solik mugatzen, alta euskaldun bat izan baitzen gurutzadaren kronikarietako bat. Ezer gutxi da Guillermo Tuterako trobadoreari buruz egun ezagutzen duguna. Manuel Mila i Fontanals filologo katalan handia zenaren aburuz, Gaskuñan etorkia zuen eta Tuterako burgo frankoan errota zuen sendi baten altzoan sortuko zen *Gurutzada albiarraren kanta* olerkiaren eglea. Trobadore fina, Antso Azkarraren gortean aritu bide zen kantari, Nafar noblezia bereziki gogokoa zuen, eta Gaztelakoari hista egiteko aukera etzuen galdu bere idazkin. Gurutzada deskribatzen duena gureganatu idazki bakarra izan arren, ez dirudi ordea izkiriatu lan soila zenik, izan ere Antso Azkarrak berekin eraman baitzuen Navasko borrokaldira, eta horren berri emanen zuena ontzeko asmoa argi eta garbi agertu baitzuen. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko zortzigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 4an jokatu. **Vadim Zvjaginsev** (Errusia), 2.600 ELOkoa — **Julio Granda** (Peru), 2.605 ELOkoa.

1. Zf3, d5; 2. c4, d4; 3. e3, Zc6; 4. d4, Zd4; 5. Zd4, Dd4; 6. Zc3, c6; 7. d3, Zh6; 8. Ae3, Dd8; 9. Ah6. Bi ahoko jokaldia: peolen egitura apurten du, baina alfilaria bidea irekitzen dio, alfilen bikotea gordeta gainera.

9. .... h6; 10. d4, Ag7; 11. d5, Dd6; 12. Gc1, Dg6; 13. Df3, Dg5; 14. De3, Ae5. Txurien jokoa ez da zehatza izan. Dama trukatu beharra daukate. Beltzek posizioa konponduko dute, alfilen arriskuari eutsiz.

15. Dg5, g5; 16. Ad3. Oso erabaki arriskutsua. Peoi bat isolatuta geldituko da.

16. .... d5; 17. d5, Ad7; 18. 0-0, Gc8; 19. Ze4, Gc1;

20. Gc1, b6; 21. b3, f5; 22. Zc3, Ef7; 23. Zb5, Ga8; 24. Gc2, a6; 25. Zc7, Gc8; 26. Ze6. Zaldiraren ahultasuna alfilen aurrean nabarmena da. Orain gazteluak trukatu eta alfila-zaldia aldateta eginez peoi bat irabaz daiteke. Baina ez da unea, kolore ezberdinetako alfila geratuko liratekeelako.

26. .... Ef6; 27. g3, Gc2; 28. Ac2, h6; 29. Ad3, Ac8; 30. f4, f4; 31. Zf4, Ab7; 32. Ef2, Ad6; 33. Ee2, Aa3; 34. Ee3, Ac8; 35. Af1, Ee5; 36. Ah3, Ac1 xa; 37. Ef3, Af4; 38. f4 xa, Ed4. **Ikus koadroa**. Beltzak, partida eskutian, problemarik gabe nagusituko dira.

39. Af1, b5; 40. Eg3, Ad7; 41. b4, Ec3; 42. Eh4, Ae8; 43. Ae2, Af7; 44. Ah5, Ad5; 45. Ag6, Af3; 46. Ah5, Ae4; 47. Af7, Af3; 48. Ah5, Ah5; 49. Eh5, Ed4. Beltzak lehenago iristen direnez, txuriek etsi egin zuten.





# Iruñerria bizikletaz ezagutu

Ekainaren 30era bitarte ibilaldiak antolatu ditu igandero Kea Taldeak

**K**ea Kirol Taldeak Iruñerrian barrena mendiko bizikleta ibilaldiak antolatu ditu bigarren aldiz. Joan den hilaren 21ean hasi ziren, eta ekainaren 30era bitarte igandero egingen dituzte. Lehenengo ibilaldiak urtarriletik martxora bitarte egin zituen Keak. Bigarren epe honetarako, hala ere, hainbat aldaketa prestatu dituzte taldeko kideek.

Eduze Elizondo / Iruñea

KEA KIROL TALDEAK Iruñerrian barreneko bizikleta ibilaldiak egiteko egitaraua antolatu du bigarren aldiz. Estreinakoz urtarrilaren 14an ekin zioten kirol ekitaldi berri honi, eta martxoaren 24ra bitarte igandero egin dituzte txangoak. Keak sortutako proiektu honen lehen zatia amaituta, bigarrena jarri dute jada martxan. Joan den hilaren 21ean hasi eta ekainaren 30era arte hainbat ibilbide antolatu dituzte. Basotxo kaleko kioskoa aukeratu dute topagune, igandero goizeko bederatzietan.

Eneko Astigarraga da Kea Kirol Taldeko lehendakaria eta berak eman digu abian jarri duten proiektuaren berri zehatza. 1992. urtean sortu zen Kea, mendiko bizikleten zalea zen lagun-talde baten eskutik. Gaur egun, 40 bat kidek osatzen dute talde. Kea lehiaketetan parte hartzeko asmoz egin zuten. «Urte askotan egin dugu eta oraindik ere hartzen dugu parte lehiaketetan». Lehiaketak duen erakaragarritasunari uko egin gabe, bestelako bideak ere bilatu —eta aurkitu— dituzte, baina, Keako kideek.

Iruñerrian barrena mendiko bizikletekin ibilaldiak egiteko ideia, zehazki, orain dela bi urte hasi zen mamitzen Keako kideen buruetan. «Zerbitzu bat eskaini nahi genien iruindarrei». Hori dela eta, Iruñeko Udalera jo zuten Keak, eta baita haren laguntza jaso ere. Proiektuaren finantzaketa, hain zuzen ere, erdi bana hartu dute beren gain Iruñeko Udalak, batetik, eta Iruñeko Kuxta Muzikpalak, bestetik.

Urtarrila eta martxoa bitartean burututako ibilaldiei dagokionez, balorazio positiboa egiten du Eneko Astigarragak: «Ez da jende asko etorri baina kontuan izan behar dugu oso eguraldi txarra egin duela azken hilabeteotan». Batzuek beste, 50 lagun inguruko taldeak izan dituzte igandero. Oro har, 200dik gora lagunek eratzun diote Keak egindako deialdiari, baina horietako batzuek ibilaldi bat baino gehiago egin zutela kontuan hartuta, 500 lagun inguru bildu dituzte osotara Keak antolatutako ibilaldietan. Horien artean gazteak eta ez hain gazteak izan dira, Astigarragak jakinarazi duenez. Batez besteke adina, hain zuzen ere, 29 urtekoa izan da. «Hori izan da,

hain zuzen, Udaleko arduradunek izan duten kezka, mendiko bizikleta ez ote zen gazteendako kirola. Guk ezetz erraten genuen eta hala gertatu da. Gazte asko etorri bada ere, hain gazte ez direnak ere askotxo izan dira».

Urtarrila eta martxoa bitartekoa, hala ere, proba epea izan dela azpimarratzen du Eneko Astigarraga Keako lehendakariak. «Gure asmoa proiektua sendotzea da eta horretarako denbora behar da», azaltzen du. Hasteke, hainbat aldaketa egin dituzte Keako kideek bigarren epe honetarako, ibilaldietan parte hartu zuten txirrindularien artean banatutako inkestaren emaitzak aztertu ondoren.

**Bi talde eta bi ibilbide igandero** • Urtarriletik martxora bitarte, talde bakarra ateratzen zen igandero, eta taldearekin batera bi gida, bata aurrean eta bestea atzean. Inkesta egin ondoren, ordea, bai aurrean bai atzean pozik ez zeuden txirrindulariak bazirela ohartu ziren. «Batzuentzat azkarregi joaten ginen eta beste batzuentzat motelgi». Hori dela eta, bigarren epe honetan bi talde ateratzen dira igandero. Batak bestea baino ibilbide luzeagoa egiten du eta azkarrago, gainera. Beste taldea motelago joaten da eta nahi adina aldiz gelditzen dira. Ordu eta leku jakin batean topo egin ondoren Iruñera itzultzen dira guztiak.

Igande honetan Erreniegako mendizerran zehar egingen dute Keako kideek ibilaldia, eta gainontzeko igandetan —ekainaren 30era bitarte—, berriz, Plazaolaren ibilbidea, Iruñean zeharreko itzulua, Alaizko mendizerra, San Cristobalera igotzea, Iruñerriko ekialdea bisitatzea, mendebaldean zeharreko ibilaldia eta Gongorako mendizerrako ibilaldia egingen dituzte.

Eneko Astigarragaren ustez, bizikletaz ibiltzeko inguru ezin aproposago eta ederragoa da Nafarroa. «Paisaia anitza da, gainera, eta aukera asko dago». Bardeak eta Iratiko oihana txirrindulariek gehien ezagutu eta gehien zeharkatzen dituzten inguruneak badira ere, Astigarragaren irudikoz beste leku anitz ere baditu gure herrialdeak. «Urbasa eta Andia zoragarriak dira, baita Baztan aldea, Zaraitzu, Aibar...». Iruñerrian bertan, «ibilaldi ezberdinak egiteko hamaika aukera dago».



1992-1993an izan zuen mendiko txirrindularitzak gorakadarik nabarmenena.

JOXE LACALLE

## Mendiko bizikletaz mundura

ENEKO ASTIGARRAGA Kea Kirol Taldeko lehendakariak 1992 eta 1993 urteak jotzen ditu mendiko bizikletaren gorakadaren urtetzat. «Mundu guztiak erosi zuten mendiko bizikleta, baina asko eta askok berehala utzi zuten». Kea Kirol Taldeko kideek, hain zuzen, Iruñean eta inguruan dauden mendiko bizikletei buruzko ikerketa egin dute.

Jasotako datuen arabera, gutxi gorabehera 7.000 eta 10.000 bitarteko bizikleta kopurua dago, baina horietako 1.000 baino ez dira nolabaiteko erregulartasunez erabiltzen —astean behin gutxienez—. «Gainontzekoak, bakoian, ganbaran edo edozein txokotan egoten dira. Jendeak ilusio osoz erosten ditu, baina berehala konturatzen da mendi-txirrindularitza ez dela uste duen

bezain erraza. Nekatuta edo ezusteko bat duten lehen egunean bertan, alboan uzten dute betirako bizikleta».

Keako kideak bizikleta aukeratu eta geroztik alboan utzi ez duten horietakoak dira, ordea. Egun, 40 kide inguruk osatzen dute taldea. Kea hainbat ataletan banatu dute: lehiaketena, informazioarena eta eguneroko ekitaldiena. Lehiaketari dagokionez, mendiko bizikleten munduan hasi diren gazteentzako babesleak bilatzea eta gazte horiek koordinatzea da Kea Kirol Taldearen zeregina, «ahalik eta lasterketa gehienetan parte har dezaten». Lehiaketaren munduari dagokionez, aurtengo etengabeko egun dela nabarmendu du Eneko Astigarragak. «Joan den urtean, jada, nahiko nahasketa izan zen lehiaketetan. Hori

dela eta, hainbat kidek taldea utzi zuten».

Informazioaren atalak kanpoko harremanak ezezik, talde barrukoak ere zaintzen ditu. Horretarako, «guztiok taldeari buruz ahalik eta informazio gehien izan dezagun», buletinak osatzen ditu. Eguneroko ekitaldien atalak, azkenik, igandeko ibilaldien gisako ekintzak antolatzen ditu.

Hauetaz gain, hala ere, badute beste proiekturik abian jartzeko asmoa. «Mendiko bizikleta bidaiatzeko aukeratu dutenen taldea sortu nahi dugu», azaldu digu Keako lehendakariak. «Ildo berean, txirrindulariek autonomoagoak izaten hasi behar dute ja aldarrikatu du Eneko Astigarragak».

Asmo hau egia bihurtzeko heziketa atala sortu behar dela azpi-

marratu du Keakoak. «Bidaia luzeak egiteko funtsezkoa baita bizikleta ongi ezagutu eta larraldietan zer egin behar den jakitea».

Eneko Astigarragak aipatzen duen legez, mekanika, teknika eta osasuna dira txirrindulariek halako bidaiak egin aurretik landu eta ezagutu behar dituzten gaiak. Halaber, bidaia bakoitzak dituen baldintzetara bizikleta egokitzea oso garrantzitsua dela nabarmendu du Keako kideak. Gai hauetaz, ordea, ezer gutxi dakite Eneko Astigarragaren ustez errepidera ateratzen diren txirrindulari askok. «eta hori oso arrisku-tsua da». Horregatik, txirrindularien heziketa zainduko duen atala sortzea funtsezkotzat jotzen du Kea Kirol Taldeko lehendakariak. «batez ere bidaia luzeak egiteko». X



◆ Rikardo Ederra ◆ Sortzen-eko kidea

# «Gero eta gehiago eskatu behar dugu»

**N**afarroan irakaskuntza eskaldunaren alde inoiz egin den kanpaina handiena burutu berri du Sortzen-ek. Rikardo Ederra kanpaina horretaz eta euskal irakaskuntzaz mintzatu zaigu elkarrizketa honetan.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea


**SORTZEN-EN** irudikoz, euskal eskola publikoak euskalduna behar du izan. Euskal Herrirako egindakoa eta euskal kulturaren bultzatzailea. Horretaz gain, irekia, partehartzailea, herrikoa eta aurrerakoa. Egungo errealitatea, alta, ez dator bat guraso, ikasle eta irakasle euskaltzaleak biltzen dituen elkartearen definizioarekin bat.

■ **Nolakoa da gaur egungo euskal eskola?**

Nafarroan badugu euskal eskola, euskaraz irakasten delako, baina hemen daukaguna gehienbat eskola publiko tradizionala da, eskola espainiarraren oinarriak dituena, eta garatzen ari dena. Guk gertatzen ari den garapen hori gure helburuetan amaitzea nahi dugu, baina momentuz ez gara helburu horietara ailegatu, ezta gutxiago ere. Egiteko dugun bidea luzea da. Euskara eskoletan sartzeak, nahiz eta aurrerapauso handia izan, ez du derrigorrez ekarriko euskal eskola lortzea. Nafarroako eskola publikoa euskal eskola bihurtzeko lan handia egin beharko dugu oraindik. Dena dela ez dugu amore emango hori lortu arte.

■ **Bidea luzea da, baina horretan barna ematen ari diren urratsak ez dira motzak 1995/96 ikurteko matrikulazio datu begiratzuz gero. Zer deritze horiei?**

Oso onak dira. Eskualde eus-



Ederraren eskutik eman zituen estreinako urratsak Sortzen-ek

JOXE LACALLE

kaldunean (Euskararen Legeak euskaldun izendatzen duen eskualdean) haurren % 76 D eredu matrikulatu dira. Normalizazio bidean oso aurrerapauso handia da. Zonalde mistoan (Euskararen Legearen arabera) azpimarratzekoa da D eredu lehendabiziko aldiz nagusi izan dela, matrikulazioaren % 36arekin. Hori oso garrantzitsua da, eta aurtengo aurrera egitea espero dugu.

Hori guztia, dena den, irakaskuntza publikoan gertatzen da. Irakaskuntza pribatuak, irakaskuntza profesionalek, C ereduaren aldeko apustua egiten du. Euskararen kontra ari dira, eta hori salatu nahi dugu.

■ **Ikasturte berrian datuak oraindik hobek izatea espero duzuela esan duzu. Hori, besteak beste, egin berri duzun kanpainaren ondorio izan litezake. Nolakoa izan da kanpaina hori?**

Oso emaitza onak lortzea espero dugu. Egin diren beste kanpaina batzuk ere oso positibotzat hartzen ditugu. Hor izan dira eskolaz eskola, eskola bakoitzak egin duen kanpaina, eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikak egin duen kanpaina. Azken horrekin, ordea, ez gaude erabat ados. A eta D ereduak bultzatzeko esaten delako. A eredu eskualde mistoan bultzatzea iruzurra iruditzen zaigu.

Sortzen-ek egin duen kanpaina Nafarroan inoiz egin den handiena izan da. Egin dira kartelak, egin dira triptikoak eta egin da irrati eta telebistan eskaini den iragarki bat udaletako euskara teknikariekin batera. Oso elkar-

lan interesgarria izan da hori.

Horretaz gain, festa egin genuen Takonera parkean, eta oso arrakastatsua izan zen, gehienbat guraso, irakasle eta ikasleen partehartzea dela-eta.

■ **Zein da, labor bilduta, kanpaina horretan plazaratu nahi izan duzun mezua?**

Gurasoei helarazi nahi izan diegun mezu nagusia izan da D eredu dela gaur egun Nafarroan eredu integratzaile bakarra. D eredu horretan matrikulatzeak ekartzen du Nafarroan dauden bi hizkuntzak ezagutzea eta biak erabili ahal izatea. Beste ereduekin alderatuta, D eredu euskara eta gaztelaren arteko berdintasuna lortzen duen eredu bakarra dela azpimarratu dugu. Beraz, integrazioaren ideia bota nahi izan dugu nagusiki. Horretaz gain, eredu honen bitartez hemengo kulturari, hemengo irakaslerari eusten zaiola azaldu nahi izan dugu. D eredu matriku-

*s o s l a i a*

Sortzen euskal eskolaren aldeko taldeak, besteak beste, Rikardo Ederraren eskutik eman zituen estreinako urratsak. Duela bost urte izan zen hori. Garai horietan hala Ederraren nola Sortzen-en gainontzeko sortzaileen asmoa Euskal Autonomi Elkartearen indarrean jarri nahi zuten Eskola Publikoaren Legeari kontra egitea zen.

Lege horrek Nafarroan ez zuen inolako eraginik. Gauzak horrela, Nafarroako Sortzen-ek beste garapen bide bat hartu zuen. Bide egokia, nonbait; izan ere, egun Nafarroako da existitzen den Sortzen bakarra. EAEko aspaldian desagertu zen.

Bide korapilatsua da Nafarroako Sortzen-ek hartu zuena, euskal irakaskuntzaren hobetzearena, hain justu. Hala ere, bost urte geroago bide horretan barna segitzen dute, jo eta su. Sortzen-ek eta Rikardo Ederrak berak.

latzearen aldeko apustu argi eta garbia egin dugu, jakina.

■ **Azkenik, gerora begira zer?**

Gero eta haur gehiago matrikulatzen ari dira D ereduaren. Beraz, atera behar den ondorioa da gero eta gehiago eskatu beharko dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) eta Unibertsitatean, hau da, irakaskuntza prozesu osoan, euskaraz ikasi ahal izatea, eta hori bermatuko duen azpiegitura eta abar aldarrikatu beharko dugu. Horren inguruan bi gauza azpimarratu behar ditugu. Lehendabizikoa, DBHn eskaintza guztia euskaraz egin ahal izatea, bai batxilergoa, baita Lanbide Heziketa ere. Azken horretan arazo asko izan dira orain arte. Bigarrena, gaur egun Unibertsitatean dauden arazoak. Euskarari ez dagokio egun unibertsitatean bizi duen egoera. Gaztelaren pare egon behar du euskarak, eta hori lortu behar dugu pixkanaka.

«Euskal eskola publikoak euskalduna behar du izan, Euskal Herrirako egindakoa eta euskal kulturaren bultzatzailea»

P A N E  
**LUCRANDO**

ZALDI EROA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
-14-

GAUR:  
HAURRA

ENAMOTO KIKAKU



Bere amak darama gerizondo loratuen artean!